



## Stock Azoka egingo dute estreinakoz, asteburuan

**TOLOSA** ▶ Igarondo Merkatarien elkarteak antolatuta, Beotibar pilotalekuan izango da

**AUKERAK** ▶ Denboraldi amaierako nahiz aurrekoetako arropa, prezio baxuetan eskuratu ahalko da ▶ 3

**TOLOSALDEA** ▶

Hamaika  
Taldea,  
euskarazko  
kateen alde

Babes handia  
jaso du ekimenak ▶ 4

## Bi gazte marokoarren istorioaren dokumentala estreinatuko dute, etzi

**TOLOSA** ▶ Iñigo Asensio, Isitxo Larrañaga eta Iñaki Elola dira '1.200 kilometro' lanaren egileak; Leidor aretoan egingo duten lehen proiektzioa da, doan, 20:30ean ▶ 2

**AMEZKETA** ▶

Olazabal,  
Joxean  
Tolosa  
Txapelketan  
txapeldun

Aresoarra «gustura»,  
Bengoetxearen aurka  
irabazi ondoren ▶ 5

**ARESO** ▶

Alustizaren  
'Txiki'  
artzain  
txakurra  
6. postuan

Euskal Herriko  
Artzain Txakur  
Lehiaketan aritu da ▶ 7



HITZA

**hitza**  
argazki  
**lehiaketa**  
bidali argazkiak

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**  
▶ P. elektronikoa: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)  
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.  
Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA  
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri  
**OINARRIAK:** [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



**Sari nagusia**  
**2. saria**  
**ZOKETA APARTAK**

**Asteburua Euskal Herriko landetxe batean**  
Plaza Etxeberri jatetxean afaria

**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE**  
guztien artean HITZaren mobila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

KULTURA ▶

# Tangerretik Tolosarainoko bidea, aukera berrien bila

'1.200 kilometro' dokumentala estreinatuko dute, etzi, 20:30ean, Leidorren; bi gazte marokarren istorioan oinarritu dira Asensio, Larrañaga eta Elola egileak

IÑIGO TERRADILLOS

Immigrazioaren gaia pil-pilean dago, eta ez da egunik igarotzen etorkinen inguruko berririk jasotzen ez dugunik; are gehiago, orduan eta gogorra goak eta tamalgarriagoak izan ohi dira azkenaldian, egoera txiroetatik ihesi, Lehen Mundu deiturikora iristeko ahaleginetan jazotzen diren gertakariak; amaiera kaxkarrarekin gehienak, eta onarekin gutxi batzuk. Hain zuzen ere, amaiera zoriontsua izan duen bi gazte marokarren istorioan oinarrituriko dokumentala da *1.200 kilometro*. Tolosan gertatua eta tolosarrek egina; etzi estreinatuko dute Leidor aretoan, 20:30ean.

45 minutuko iraupena duen ikus-entzunezkoan, bi gazte hauek Tangerretik Tolosarako bidaia nola egin zuten azaldu nahi izan dute Iñaki Elola, Iñigo Asensio eta Isitxo Larrañaga tolosarrek. Azken bi hauek gertutik bizi ahal izan duten istorioa da; izan ere, atzoko aurkezpenean azaldu bezala, Marokon ziren, pasa den urteko abenduan, beste hainbat tolosarrekin batera, oporretan egun batzuk igarotzen, eta etxera bueltatzean, Tolosako tren geltokiaren aldamenean, euren autobusaren azpialdetik bi gazteak nola atera ziren ikusi zuten. «Une horretan txaloka hasi ginen guztiak», azaltzen dute; «geure laguntza eskaini genien, jatekoa, arropak, lo egiteko lekua... eta horretaz gain, euren egoera konpontzen saiatzeko bilerak izan genituen, Goizaldi eta Peñascal fundazioekin bat egin arte. Hizkuntza eta lanbidea ikasten diharduten beraz». Herrian jaso duten



Andoni Iturzaeta, Isitxo Larrañaga, Iñaki Elola eta Iñigo Asensio, atzo eginiko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

erantzuna, orohar oso ona izan dela azaldu dute filmeko egileek. «Oso gustura daude berarekin, asko saiatzen ari direlako; gainera, herrian ere ari dira pixkanaka pixkanaka murgiltzen».

Segituan ikusi zuten egileek istorio honekin zer edo zer egin beharra zegoela, eta pantailara eramatea pentsatu zuten. «Iritsi eta bigarren egunean hasi ginen grabatzen; gure asmoa, batetik, bidaia zein egoeran egin zuten erreproduzitzea izan da, eta bestetik,



Marokon bertan aritu dira grabaketak egiten. IÑAKI ELOLA

## Etzi hasiko dira Leidorren zine proiektzioak

*1.200 kilometro* dokumentalaren estreinaldiaren ostean hasiko dira Leidor eraberri-tuan zine proiektzioak. Hain zuzen ere, etzi, 22:30ean *Alatriste* pelikula izango da estre-inakoa. Ostiraletik astelehenera ikusi ahal izango dira filmeak aurrerantzean; ostira-lean 22:30ean, larunbate-

an 16:30ean (haurrentzat), 19:30ean eta 22:30ean, igande-  
dean 17:00etan (haurrentzat) eta 19:30ean eta astelehenean 20:30ean (ikuslearen eguna). Sarrera ordaindu beharreko prezioari dagokionez, hurrek 3 euro ordaindu beharko dituzte, ikuslearen egunean 3 euro ordaindu beharko dira,

eta gainerakoetan 4 euro. Bestalde, ostegunetan zine forum- a (lehen, zine klubak) izango da 21:30ean, eta 4 euro ordaindu beharko dira. «Badakigu Donostian baino beranduago ekarriko ditugula Tolosara pelikulak, baina prezio merkeagoan ikusi ahaliko dira, eta herritik mugitu gabe, gai-

nera», azpimarratu dute Udalletik.

Bestalde, hurrengo asteetan ondorengo pelikulak eskainiko dituzte: *Piratas del Caribe 2* (irailak 23 eta 24), *Kutxidazu bidea*, *Ixabel* (irailak 30, urriak 1, 2, 6, 7, 8 eta 9), *Julietta fokaxoa* (irailak 30 eta urriak 1) eta *Cars* (urriak 8). ◀

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## EKONOMIA ▶

# Puntako markak, preziorik baxuenean

## Eskualdean, estreinakoz, Stock azoka antolatu du Igarondo Merkatarien elkarteak; Beotibar frontoian, asteburuan

**ESTI EZEIZA**

«Puntako markak, prezio oso baxuan», hori da, Gerardo Arimek, Igarondo elkarteko zuzendaritzako kideak eta gairontzeko merkatariak eskainiko dutena asteburu honetan. Beotibar frontoian egingo den azoka handi honetan, denboraldi amaierako, nahiz aurreko-etako arropa eskuratu ahal izango da, prezio «ikaragarri merkeetan». Stock azoka honetara doan sartu ahal izango da. Larunbat eta igandean egongo da irekita, goizeko hamarretatik gaueko bederatzietara.

Egitasmo hau, lehenengo aldiz gauzatuko da eskualdean,

eta antolatzaileen esanetan «ikusmin handia ari da sortzen dagoeneko». Bestalde, ziurtatu zuten, orain arteko esperientziak kontutan hartuta, esaterako, Zarautz, Orereta eta Eibarrekoa, egitasmoak arrakasta izango duela. Honekin batera, 750. urteurrenak hiriari eman dion bultzadaz ere baliatu nahi izan dute, data hauek egokiak direla uste baitute.

Beotibarrera joaten denak, erakusmahaietan, modako arropa, oinetakoak, osagarriak, bitxiak, lentzeria, umeentzako arropak eta kirol egitekoak aurkitu ahal izango ditu. Denara 16 denek hartuko dute parte ekitaldi honetan, denak ere, Dendartean erakundearen

barruan daudelarik. Tolosaldeko ondorengo hauek izango dira: Mugar lentzeriak, Desgaste oinetakoak, Aralar Kirolak, Arri oinetakoak, Kanikak, A-ropa, Pottoko, Pasaban, Colors, eta Khare. Ordiziatik etorriko dira berriz, Ness, Xik, Kixki eta Ttipi-ttapa. Eta azkenik, Zarautzetik etorriko dira, Elena/Aginaga eta Vulcano dendetakoak. Guztiek ere, lehen mailako marketako arropa ekarriko dute saltzera. Horien artean, ezagunak diren, Roxy, Quicksilver, Kenzo, Fluxá, Calvin Klein, Reef, Carhartt, DKNY, Giulio, Boreal eta Nort Face.

Azoka honekin, alde batetik, parte-hartzaileek, beraien saltegitako biltegiak hustu nahi



Josemi Gomez zinegotzia eta Gerardo Arim, atzo, aurkezpenean. E.E.

dituzte. Horrez gain, eskualdeko nahiz kanpoko erosleak erakarri nahi dituzte. Eta azkenik, egunerokoan, Tolosaldeko merkatal guneek jarrai dezaten laguntzen duten bezeroei, produktu hauek eskaini nahi dizkiete, prezio oso baxuan. Berezitasun gisa, salmenta

gune bakoitzak produktuak saldu ahala, erakusmahai berrituz eta aldatuz joango da. Honekin batera, aurkezpenean, Arimek azpimarratu nahi izan zuen, egitasmoak arrakasta izango balu ere, ez dela urterto egingo den gauza bat izango, nohizbehinkakoa baizik.

**GUTUN@K ▶**

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Kiroldegiko inaugurazioan ez gara izango

Gonbidatuak izan garen arren, Anoetako ezker abertzaleko alkate eta zinegotzi ohiak ez gara kiroldegiko inaugurazioan izango.

1. Ezin ditugu gure lanbideak utzi eguerdiko hamabietan.

2. Lotsagarria iruditzen zaigu ekitaldi honetarako bakaerri gurekin kontatzea beste guztietarako inorekin kontatzen ez dutenean.

3. Herritar asko eta asko, gure moduan, ezingo dira hurbildu ordu horretan. Ez da or-

durik egokiena inaugurazio herrikoia egiteko.

4. Inaugurazio elitista bat da. Beraien esku egon balitz (gaur egungo udalkideak, Foru Aldundikoak...), ez zuten kiroldegia egingo, baina inaugurazio egunean argazki elektoralista ateratzeko lehenengo lerroan jarriko dira.

5. Herritarrekin nahasteko beldurra dute, apartheid-a aprobetxatuz herriak aukeratuak ordezkariek baztertzeko dituzte eta herritarrekin edozein eztabaida saihesten dute.

6. Herritarrak zergen bidez zigortu dituzte kiroldegia ordaintzeko aitzakiarekin eta oraindik kiroldegia ordaintzen ez dira hasi, haserako urtetan

karentzia duen kreditua eskatu dute.

7. Kiroldegia ordaintzeko zegoen iturburua moztu dute berririk bilatu ez arren, Foru Aldundiak ere bizkarra eman du.

8. Kiroldegiaren gestioaz herritarren artean hitz egin ordez bulego itxietan hitz egiten da.

Inaugurazioa beste era batean izan balitz ez dakigu zer egingo genukeen, baina argazki horretan ez egoteak ez digu penik emango, nahiz eta kiroldegi hori inauguratzeko inork baino motibo gehiago izan.

**JOXE MARI SARASOLA, GORKA OTXOA, PERIKO PEÑAGARIKANO (EZKER ABERTZALEKO ZINEGOTZI, ALKATE OHI ETA ZINEGOTZI OHIEN IZENEAN) ▶ ANOETA**

**MUGIKORTASUN IRAUNKORRA ▶**


## Txirindaz, eskualdean barna

**Erredakzioa** ▶ Mugikortasun Iraunkorraren Astea burutzen ari dira Ernioaldea Udal Talde 21 osatzen duten herriak. Honen barruan, igandean, Erniopeko bira egin zuten; Zizurkilan hasi, eta Tolosan amaitu zuten txirindulariek ekitaldia. HITZA

**iragarki laburrak ▶**
**SALGAI.**

**Motorra.** Suzuki Katana, 49 zm3-koa, urez refrigeratua eta egoera onean. Deitu 943 65 29 32 edo 635 20 56 77 zenbakira.

**Txakurkumeak.** Setter ingelesa (Leveling) arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak. Gurasoak oilagorretan trebeak. Deitu 647 14 40 70era.

**LANA**

**Sukaldaria.** Tolosaldeko taberna baterako sukaldean dakien

persona bat behar da. Telefona: 686 03 29 01

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91

**Psikopedagogoa.**

Psikopedagogian lizentziatuak banakako laguntza saioak ematen ditu Tolosan. 670 02 11 22.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentukoa. 635 74 52 91.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Irudietan.** Udako oporraldien ondoren, IV. Hitzaz Argazki Lehiaketan jasotako irudiak ikusi ahal izango dituzu gure webgunean. Zuk ere bidal dezakezu oraindik zure argazkia, eta hala, hurrengo egunetan, irudietan sailean aurkituko ahal izango duzu zurea. Anima zaitze, eta parte hartu!

# MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

**Jatetxea**

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

## ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

KOMUNIKABIDEAK ▶

# Eskualdeetan euskarazko telebista kateak sortzeko Hamaika Taldea eratu dute

Enpresan EKT, CMNT, EKHE, Euskaltel, Elkar eta Bainen elkartu dira eta eskualdeetako eragileekin batera kate digitalen proiektuak prestatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Eskualdeetan euskarazko telebista sortzeko eta bultzatzeko helburuarekin Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea sortu dute eta atzo aurkeztu zuten, Bilbon. «Euskarazko komunikazio talde sendoa sortu da», zioten bazkideek. Izan ere, EKT (*Berria* egunkariaren jabea eta HRTA egunkarietako bazkideetako), CMNT (*Deia* eta *Noticias* taldea), EKHE taldea (*Gara* eta *Euskal Herriko kazeta* egunkariak), Euskaltel, Elkar argitaletxe eta banatzailea, eta Bainen ekoiztetxea elkartu dira.

EKTk, CMNTk, EKHEk eta Euskaltelek enpresaren jabetzaren %20na dute, eta Elkarrek eta Bainenek %10na. Haien ustez, arlo ezberdinetan ari diren enpresek bat egiteak «garrantzia» du. Helburu bera dute «jatorri ideologiko ezberdineko pertsonen eta taldeen».

Bazkideek oharrarazi zuten, gero eta telebista kate gehiago daude Euskal Herrian ere, «eta horietatik gehienak kanpoan ekoiztutakoak dira. Horrek berebiziko garrantzia dauka egunero informazioaren ekoizpenean, munduaren ikuskeraren antolaketa, gure ohituren moldaketa eta gure nazio nortasunaren osaketa». Euskal komunikazio esparruaren egoera «kezagarri» horretan, «azpimarratzekoa da euskaraz telebista esparruan duen agerpide ahula».

Orain, digitalizazioaren etorrerarekin, aukera berriak daude telebista kate gehiago

sortzeko. Horien artean, tokian tokiko telebista digitalak sortzeko aukera, eta Hamaika Taldeko bazkideek aukera horri eustea erabaki dute. «dauden euskarazko tokiko telebistekin, euskarazko kateen panorama nabarmen hobetzeko».

Proiektua, nazionala da. EAEn, Eusko Jaurlaritzak laster egingo du hamabost eremutan launa lizentzia banatzeko deialdia eta Hamaikak ordurako proiektuak prest izan nahi ditu. «Tokian-tokian gurekin parte hartu nahi duten eragileekin prestatuko ditugu egitasmoak. Denak dira beharrezko eta aukera paregabea izango da sortuko diren tokiko telebistetan parte hartzeko».

## BABES HANDIA ▶

Jende asko bildu ziren atzo Bilboko agerraldian eta babesa adierazi zioten proiektuari. Han ziren, Marbelo Otamendi *Berria*-ko zuzendaria, HRTA egunkarietako ordezkaririk, Juan Mari Torrealda eta Gotzon Garate idazleak, Iñigo Urkullu EAJkoa, Juan Jose Petrikorena Batasuneko, Mikel Basabe Aralarrekoa, Joxe Elorrieta ELAkoa, Rafa Diez LABekoa, pilotariak, Euskaltel-Euskadiko txirridulariak, Kepa Junkera musikaria, Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Aldundikoa...

Hala, Hamaikakoak eskualde bakoitzeko eragileekin bilduko dira. Lehenengo deia, euskalgintzan ari diren elkar-teei, enpresei eta norbanakoei egingo diete. Gero, ikusentzuan dabiltzanei. Erakunde publikoei ere bai ondoren.

## Oinarri sendoak

Egitasmoak dagoeneko hainbat oinarri sendo dituela nabarmendu zuten: Euskaltelek jarriko duen teknologia digitala, Bainenek telebista ekoizpenean duen eskarmentua, Elkarren esperientzia kultura alorrean, eta komunikabideen alorrean diharduten hiru enpresa taldeen babesa.



Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko bazkideak, atzo, Bilbon. HITZA

ANOETA ▶

## Abraham Olano kirolegia inauguratuko dute

Anoetako kirolegi berriari Abraham Olano izena jarriko diote eta bihar egingo dute inaugurazio ekitaldia, 12:00etan, Anoetako txirridulari ezaguna bertan dela. Larunbatean, goiz eta arratsalde parteko ate irekiko jardunaldia izango da herritar guztientzat. Beste jardueren artean, anoetarrek azpiegitura berria ezagutu dezaten zuzenduriko ekintzak izango dira. Astelehenean, aurrera kirolegiak ateak zabaiak izango ditu. Udalak herritarrek ekitaldietan parte hartzea gonbidatzen ditu.

ANOETA ▶

## Alkartasun babarrun jatea antolatuko dute

Alkartasuna Biltokian babarrun jatea egingo dute San Miguel egunean, hilaren 29an. 14 euro ordaindu behar dira eta irekia da nahi duen guztientzat. Izen-ematea egoitzan bertan egin behar dute, 18:30etik 20:00etara, hilaren 27a bitartean. Bazkariaren ondoren dantzaldia antolatuko dute.

IRURA ▶

## Buruhandiz ateratzeko aukera jaietan

Izurako San Miguel jaietan buruhandiz ateratzeko aukera izango da. Etzi, jaien hasierarekin batera 12 urteko gorakoek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Gazteak eman beharko dute izena. 6 urteko 11 urte bitartekoek larunbatean 17:30etik 18:00etara, Trinketetik Loatzo Parkera egingo den kalejiran parte hartu ahal izango dute. Horretarako liburutegian eman beharko dute izena. Bestalde, larunbatean haurren bazkaria egingo dute San Miguel plazan. Bazkari hau doan da eta bertara joan daitezke 3 urteko 14 urte arteko haur eta gazteak (2 urtekoak ere bai 3 aurretik betetzen badituzte). Bazkari joan ahal izateko egin behar den gauza bakarria izena ematea da. Izen emateko epea etzi bukatzen da eta ordura arte liburutegian izango da aukera, 17:00etatik 19:00etara.

## ERREAKZIOAK ▶ Zer iruditzen zaizu euskarazko tokiko telebista bultzatzea?

**IÑAKI AZALDEGI**  
EUSKARA TEKNIKARIA

«Euskara hutsean izan behar du»



«Guztiz beharrezkoa. Gertuko ematen duten komunikabideek euskara hutsean izan behar dute. Beharrik ez badago, ez da euskara ikasten eta erabiltzen».

**MILA OTAMENDI**  
EUSKARA IRAKASLEA

«Irratia eta prentsa bezala, telebista ere»



«Oso ideia ona. Irratia eta prentsa ditugun bezala, telebista ere behar dugu. Erdaraz nahiko aukera daude. Tolosaldean erabat euskarazkoa izan behar du».

**XABI MAIZA**  
IRAKASLEA

«Batzuei euskaraz izateak ez die balio»



«Bizitza euskaraz egiten dugunon-tzako ondo. Baina nire zenbait ikasle etorkinak dira eta horietatik telebista erabat euskaraz izateak ez die balio».

**AMAIA AGIRRE**  
BERTSOLARIA

«Aurrera ateratzeko guztion beharra du»



«Horrelako proiektuen aldekoa izan naiz beti. Lan, indar eta diru askoren beharra izango du eta, beraz, guztion beharra aurrera ateratzeko».

AMEZKETA ▶ PILOTA



Igandeko finalen ondoren ateratako argazkia; gorritz, Mikel Olazabal; atzean, diru-laguntzaileak. HITZA

JOXE ANTONIO ZABALA ▶ PILOTA ESKOLAKO ORDEZKARIA

«Pilotaren egoera gaur egun ez da batere ona; atzeraka doa»



N. URBIZU

NEREA URBIZU

Joxean Tolosa pilotaria Julian Retegiri irabazi zione-ko txapela gogoan izanik hasi zen Amezketako pilota txapelketa ezaguna antolatzen.

Aurtengoan, eskualdeko bakar bat iritsi zen finalera, gipuzkoar batekin batera, biak ere nagusien arteko norgehiagokan; 18-3koa izan zen emaitza eta Mikel Olazabal aresoarra izan zen irabazle, jendea ez-tia ahotan utziaz. Pilotari aresoarra «pozik eta gustura» azaldu zen, «eta irabaziz gero, hare eta gehiago». Olazabalek azaldu zuenez, «Bengoetxeari ez zitzaizkion gauzak ongi atera, eta ezkerreko eskuarekin baldar zebilen; hori aprobetxatu nuen eta piska bat mugiaratu

# Olazabal, eskuz banaka txapeldun

Joxean Tolosa Txapelketan erraz irabazi zion Bengoetxeari Nagusietan

ziz, harek etsi eta partida nirea izan zen».

Amezketako pilotalekuan aresoarraren aldeko oihuak arruntak izan ziren, «herriko lagun eta familiako asko hurbildu baitziren, eta hori esker-tzekoa da».

Bestetik, gazteen mailan Otxandorena eta Iturrioz aritu ziren, zalantzarik gabe, igande arratsaldeko partidarik gogorrenean eta borrokatuenean. 18-9koa izan arren, biek ala biek asko borrokatu zuten ordu luze batez. Hurrengo urtean bi hauek emango dute zer hitz egina, indartsu datoz eta.

Madariaga eta Goienetxe kade-teen artekoa parekatuagoa izan zen emaitzari dagokionez; izan ere, 12 tanto egin zituen

Goienetxek. Hala ere, tantoak egin baino, hutsak egin zituen batik bat.

Joxean Tolosak finalera iritsi zirenekin hitz egin zuen, eta Olazabalekin eskumuturrean izandako lesioaz jardun zuen. Ugarteko pilotariak nagusietan txapeldun izandakoarekin hizketan, «berak ere aresoarraren lesio bera izan zuela» aipatu zion, eta «ebakuntzarik egin gabe sendatu egin zitzaio-la» baieztatu zuen.

Datorren urtean ere txapelketa egiteko asmoa erakutsi dute antolatzaileek. «Esan beharra da, Amezketako hainbat merkatari eta dendaren laguntza egin ahal izan dela, eta eskerrak eman nahi ditugu», Xalton Zabalak adierazi duenez.

Amezketarra, Fernando amezketarraren sendikoa, pilotazalea eta pilota ikasleen aholkularia askotan. Jose Antonio Zabala (Amezketako, 1952) Xalton, Joxean Tolosa Pilota Txapelketa antolatzaileetako bat da. Pilota izan da oraingoan hizpide.

**Zer moduz joan da txapelketa?**

Ondo. Agian, finalean jende gehiago espero genuen. Partidak ere ez ziren espero genituenak izan, ikusleak gogoekin geratu ziren.

**Nola ikusten duzu pilotaren egoera gaur egun?**

Gaizki. Baimen asko eskatu behar dira txapelketak antolatzeko, dirua ere bai, benjaminak, alebinak, infantilak eta alebinak kiroldegiko kirola delakoan menpe daude, eta ezin dute orduan kirol bat eskolatik kanpo ikasi... Bestalde, arau batzuk aldatu dira. Esaterako, partida ofizialetan ere ikus dai-teke pilotari baten kanporatzea hiru falta egin ostean: biraoak, adibidez. Eta grabaegoa oraindik, partida batean ordezkoak

ere atera daitezke. Hori ez zait iruditzen pilota denik, inolaz ere.

**Noizko nesken arteko pilota txapelketa?**


Txapelketetan lehenago neskak ere ibiltzen ziren, gutxi, baina batzuk bai. Entrenatzen ere aritzen dira hiru bat neska, baina taldetxo bat egitea zaila da. Horregatik, txapelketa bat antolatzea zaila da, ez dagoelako talde bat.

**Zergatik esaten da Nafarroako pilotariak hobek direla?**

Hala da, uste dut beste kasta batekoak direla, gogorragoak dira. Mentalitatea ere beste bat da: nafarrei eskuz banaka ibiltzea gustatu egiten zaie, eta gipuzkoarrei ez. Hemen denek nahiago dute binaka jokatu.

**Txapelketan izan diren pilotarien artean baten bat aukatzeratzeotan...**

Gogoratzen dut Enrike Galar-tza pilotaria, 10-12 urterekin keinuak eta indarra izugarriak zituela. Dohaiak zituen. Orain-go bat aukeratu beharko banu, Leitzako Jaunarena esango nuke, dudarik gabe. ◀



**ASTEASU:** Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pztz.  
**TOLOSA:** 3 logela. Eraberritako. Hormigoizkoa. 31.000.000 pztz.  
**TOLOSA:** Zumalakarregi. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Bista ikaragarriak.  
**VILLABONA:** Arroa. Pisu altua igogailu eta berogailuarekin. Berritua eta altzariz hornitua. Ganbara ere badu. 49.000.000 pztz. Interesgarria.  
**VILLABONA:** eraiki berria. 3 logela, egongela handia, sukalde eta bi bainugela. Altzariz erabat hornitua. 51.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** 2 logela. Kalitatezko materialak. Berogailua eta igogailua. 44.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** 75 m2 erabilgarriak. Txukuna. Altzariz hornitua. Hormigoizkoa. 36.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** Eraikuntza berriko apartamentua. Bikaina.  
**ZIZURKIL:** Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.  
**ZIZURKIL:** 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta trastelekua. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pztz.  
**ZIZURKIL:** Aurrera plaza. Igogailua eta berogailua. Terraza. Berritua.

**Errota 3 - Villabona**  
**Olatzinmo@euska.net**  
 943 243 118 - 635 706 728

**HITZA banatzeko jendea behar da Tolosaldean**  
 Tolosa, Ibarra, Villabona, Irura, Anoeta, Zizurkil eta Leitzarako.

**LEHEN BAIT LEHEN**

**LAN-BALDINTZAK :**

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 09:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara  
**943 30 35 33**

**BIRIGARRO ETA USOTARAKO**  
**POSTUEN ENKANTEA**  
**ARESON (Nafarroa)**

Donostiatik 25 minututara, kotxez postuetaraino joateko aukera. Postuak eginda eta inguruak garbituta.



**1. enkantea**  
 Irailak 23 • 19:00etan  
**2. enkantea**  
 Irailak 30 • 19:00etan  
 948 510327 • 665 63 96 74

## LIZARTZA ▶

Aimar Altuna  
De Juanarekin  
elkartasunean

Hilaren 2an, 3an eta 4ean Lizartzako Haimar Altuna preso politikoak janari ukapena egin eta aste osoan zehar zelatik atera gabe egon zen 42 egun gose greban daramatzan De Juanari elkartasuna adierazteko. Aipatu, Donostiako Urtzi Zubizarreta eta Galdakaoko Oier Goitia ere batu zirela, Haimar Altunarekin batera, De Juanarekiko elkartasunera.

## BERROBI ▶

Alurren eskutik,  
dantza ikastaroa  
astelehenetan

Udal Kultur Batzordeak, haurrentzako dantza ikastaroa antolatuta du. Ikastaroa lau urtetik aurrerako haurrei zuzendua dago eta urriaren 2an hasiko da. Dantza eskolak astelehenetan izango dira eta Alurr dantza taldeko kide bat ariko da irakasle lanetan. Izen-ematea udaletxean egin behar dute, hilaren 22a baino lehen.

## IBARRA ▶

Doako pilota  
eskolak astearte  
eta ostegunetan

Ibarrako Sendi Ekintza elkarteak eta Uzturpe ikastolak antolatuta, doako pilota eskolak izango dira sei urtetik aurrerako haurrentzat. Eskolak astearte eta ostegunetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Ikastaroa Belabieta kiroldegian egingo da. Izena emateko, deitu 943 67 58 56 edo 625 70 78 29ra.

## ZIZURKIL ▶ KULTURA

Herribideen katalogoa ikusgai  
udaletxean, abendura arte

159 fitxa daude guztira eta herritarrek ikusi eta proposamenak egin ditzakete

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak, herribideen inbentarioa zaharkitua zegoela eta, ikasturte honetan herribide guztien katalogo berria osatzen igaro du. Hala, bide pribatu nahiz publikotzat jotzen diren bide guztien kartografia eta fitxak osatu ditu, 159 guztira. Lan horretarako, lau auzotan banatu da herria: Elbarrena auzoa, Akezko, Irazu eta Mendi bailarak. Gaurtik aurrera eta urte amaierara arte, katalogoa udaletxean izango da ikusgai nahi duen oron-tzat.

Aipatu katalogoa Udalak luzatzen duen proposamena da. Proposamen horretatik abiatuz, hiru hilabeteko epea — urritik abendura arte — izango dute interesatuek topatzen dituzten akatsak jakinarazi eta hori frogatzen duen agiria aurkezteko. Lanketa horren ondoren, herribideen inbentarioa eguneratzeko prozedura administratiboari ekingo zaio.

## Landa Eremua

Hilaren 22an Europako Mugikortasun Eguna dela eta, Euskal Herriko hainbat udalerritan Mugikortasun Astea ospatzen ari dira. Horixe egin du Zizurkilgo ere. Hala ere, eta Maria Anjeles Lazkano Zizurkilgo alkateak esan bezala «guretzat mugikortasuna ez da aste batean landu daitekeen gaia. Urtean zehar mugikortasunaren hainbat arlo landu ditugu eta aste honetan emaitzen azterketara egitea dagokigu».



Aundia baserriatik igarotzen den bidea, katalogoan agertzen den bideetako bat da. HITZA

## Mendi ibilbideak

Herriko bideek sortzen duten ibilbide sareak hamaika aukera eskaintzen ditu norberari egokituriko mendi ibilbidea egiteko. Hala ere, herri bide horietan oinarrituz eta herrian dauden interesgune garrantzitsuen kokalekua ezagutzera emateko asmoz, hiru mendi ibilbide diseinatu eta seinalizatzeko asmoa agertu du Zizurkilgo Udalak, herenegun egini-

ko prentsaurrekoan azaldu zutenaren arabera.

Horrekin batera, Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziaren laguntzarekin, herria turistikoki sustatuko duen liburuxka argitaratzeko asmoa ere azaldu du Zizurkilgo Udalak. Bertan, herritarrek Zizurkilgo adierazgarritzat jotzen dituzten tokiak, bitxikeriak, data adierazgarriak eta abar proposatzeko aukera izango dute liburua publikatu aurretik.

## iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarreko txaleta salgai, 4.000 m2ko lursailarekin

eta 120 m2ko hiru solairurekin.

**Anoeta.** Duplexa salgai, estreinatze garajearekin.

**Baraibar.** 2.000 m2ko partzelan borda eraberritua salgai.

**Belauntza.** 2. pabiloia salgai, bulegoak, komunak eta abar.

**Belauntza.** Bifamiliarra: bi solairu eta 270 m2ko lursailarekin.

**Berastegi.** Familia bakarreko etxea salgai. 3.500 m2ko lursailarekin.

**Irura.** Laskibar inguruan, hiru gelako ebexibizita salgai, garajearekin.

**Donostia.** Antiguu, Escolta Real, ebexibizita eraberritua salgai, kanpora begirakoa.

**Hormilla (Errioxa).** Naxeratik hiru kilometrorra, abixikuriko etxeetan azkena. Lorategia, terraza eta piszinararekin. 160.000 euro.

**Tolosa.** Zumalakarregi, 150 m2ko ebexibizita salgai, egoera ezin hobean.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, 65 m2 erabilgarri dituen azken apartamentua salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua salgai. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zabalarreta. Ebexibizita salgai. 3 logela, egongela, sukalde, terraza, bainugela, komona, trasteleku eta garaje itxia.

**Tolosa.** Araba etorbidean ebexibizita salgai. 4 logela, egongela, sukalde, bainugela, komona, terraza 25 m2ko lokala eta garajearekin.

**Tolosa.** Errementari kalean, 3 logelako atikoa salgai. Egongela, sukalde, eta bainugelarekin. Berritua.

**Tolosa.** Errementari kalean ebexibizita salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m2ko egongela, bainugela eta sukaldearekin. Igogailua jabearen esku.

**Tolosa.** Santa Klara, 90 m2ko ebexibizita salgai. Sukalde, egongela eta bainugelarekin.

**Tolosa.** Benta Haundin, bi solairuko ebexibizita salgai.

**Tolosa.** San Esteban, kanpora begirako ebexibizita salgai. 100m2 eta eraberritu beharrekoa.

**Tolosa.** Aldaba, bi ebexibizitatan bananduriko baserria salgai. Berritzea.

**Tolosa.** Maituna zaharra. 15 garaje berri, guztiak itxiak. 30 m2tik aurrera. Karga-jasogailuen bitarteko bidea.

**Eraikitze bidean.**

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazgailuarekin. 9.480 eurotan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

## LEITZA ▶

Perkusioko  
tailerra gaur  
hasiko da  
Ateka Beltzen

15 bat ikaslek parte hartuko dute hiru egun iraunen duen ikastaro honetan

## ERREDAKZIOA

Gaur, 19:00etan hasiko dira lehendabiziko ikasgaiak jasotzen. Gizarte Zerbitzuekin batera Ateka Beltz Gazte txear antolatutako perkusio tailerrean parte hartuko duten ikasleak.

15 lagunek eman dute izena ikastaro horretan, antolatzailerik zehaztu dutenez, eta maisu lanetan Oskar Estanga izanen delarik, hiru egunetan, bi orduko saioetan, oinarriko erritmo batzuk ikasiko dituzte. Hala, larunbatean, emanaldi berezia eskainiko dute herrian.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ **DYA:** 672536
  - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autob.: 948 221015
  - ▶ **Taxia:** 670420
  - ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## LEITZA ▶ KIROLAK

Partida interesgarriak  
jokatuta, finalak ate  
joka dira txapelketan

Aurrera pilota eskolako 6 pilotari partaide direla, igandean jokatuko dituzte mailaz mailako finalak, Amazabalen

## JAIONE ASTIBIA

Azken urratsetara ailegatu da Leitzako II. Pilota Txapelketa. Igaro berri den asteburuan jokatuko dituzte finalurreko partidak eta dagoeneko, heldu den igandean txapelen bila lehiatuko diren bikoteen izenak jakindu dira.

Pilotazale mordoska bertan zela, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK jakin ahal izan zuten, Amazabal pilotalekuko erdiko atletik alde batera dauden harmailak ikusle beteta zeuden ostiraleko jaialdian esate baterako, sei mailetako finaletarako txartelak banatuta gelditu dira, Aurrera pilota eskolako ordezkariak baieztatu dutenez «partida hagitz interesgarriak eta lehiakorak» jokatuko ondoren. Antolatzailerik esanetan, «maila guztietan partida borrokatuak eta tanteo ederrekoak» joan dira: «Tiki-



Haritz Sagastibelza pilota ateratzen, ostiraleko partidari. JAIONE ASTIBIA

tan nahiz helduetan ere, galdu duten bikote gehienek ere, dozena bat tantotik gora egin dituzte, eta horrek berak pilotarien maila islatzen du», zioten.

Finalurreko partida hauen irabazleak dira, orain, txapelaren bila joan direnak. Hauen artean, bertako eskolako 6 pilotari lehiatuko dira. «Euskal Herriko pilotari politentsuenak

hemen ari direlarik, poztekoa ere badena». Hala, seniorretan, Mitxelena lagun duela, Olazabal aresoarra txapelaren bila saiatuko da; iaz lortu zuen; oraintsu irabazi du Joxean Tolosa sariketako.

Beste hainbeste egiteko intentzioz joanen da, Haritz Sagastibelza leitzarra ere, kade-tetan baina, eta atzean Pero-

LEITZAKO II. PILOTA  
TXAPELKETA ▶

## EMAITZAK

**Seniorrak.** Olazabal-Mitxelena 22 / Urrutia-Iza 13; Larrañaga-Baez 22 / Mikelperezena-Irureta 16.  
**Jubenilak.** Iturrioz-Ibarra 22 / Azpiri-Urrutia 18; Andreu-Nubla 22 / Eskudero-Nuñez 14.  
**Kadeteak.** Sagastibelza-Perosanz 22 / Epelde-Lana 18; Aurtenebe-Olalde 22 / Galartza-Gartzia 10.  
**Infantilak.** Arrieta-Arritxabaleta 18 / Iraola-Gallurralde 14; Idoate-Jaunarena 18 / Iraizoz-J. Iraola 12.  
**Alebinak.** Untxalo-Bernabe 18 / Agirre-Mendinueta 14; Iparragirre-Jaka 18 / Erostarbe-Apeztegia 05.  
**Benjaminak.** Sagastibelza E.-Iribarria 18 / Gil-Espinal 11; Sagastibelza L.-Larunbe 18 / Salegi-Nobal 13.

sanz duela. Gaztetxoek 3 mailetan ere bertakoak lehiatuko dute. Infantiletan, Jon Jaunarena, alebinetan Jon Iparragirre eta benjaminetan, tikiienetan eta interesgarriena, bi Mikel Sagastibelzak, Egues eta Lasarte, ariko dira nor baino nor.

Pilota ikuskizuna prest dago, beraz, iganderako. 09:30ean hasiko dira finalak.

## ARESO ▶ GIZARTEA

Alustizaren 'Txiki' Euskal Herriko  
Artzain Txakur Txapelketan seigarren

Bandera batengatik baina, 3. frogarako sailkatzerik lortu ez zuen arren, «egindako lanarekin gustura» dago aresoarra

## J. ASTIBIA

Bi urte pasatxo dituen ardi zakurra da Antonio Alustiza aresoarraren Txiki eta Euskal Herriko Artzain Txakuraren 40. Txapelketan, seigarren egin zuen.

Iparraldetik, osotasunean hartuz, eta Hegoaldetik, herrialde bakoitzeko txapeldunak eta txapeldunordeak ez eze, iazko sariketaren irabazle Aitor Resaren Zisa txakurraren parte-hartzearekin ere, 11 ziren guztira, igandean jokatuko zuten txapelketa, Zaldibarren. Xabier Urienen Txiki irabazi zuen, ardiak eskortera sartzen

lan hobereana berak egin zuen eta.

Txakurra, banderakin markatutako bidetik joanez hasten dira lanean; hor bandera bat hutsegin zuen aresoarraren Txiki, eta bigarren lana, artalde artzainarengana ekartzea eta hesi-tartetik pasatzea, berriaz ongi egin zituen, (7 txakurrik lortu zuten). Baina hirugarren lanera lau sailkatzerik hoberean igarotzen direnez, banderetako puntuaketak erabaki zuen. «Momentu bat izaten da hor erabakiorra; dena ongi egin behar dena. Hutsegite tiki da baina tartea ere hala da: lau horietan sartu edo ez

bandera batek erabakitzen du», azaldu du Alustizak. Baina bera gustura dago: «Aurten atera da lehendabiziko aldiz eta jendaurrean ezinezko piska bat izan zuen, baina ohituko da».

Igande honetan berriaz, Nazioartekoan parte hartuko dute, Oñatin.



Alustiza Nafarroakoan. HITZA

## iragarki laburrak ▶

## LAN HEZKUNTZA

**Gidariak.** Plaza libre betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritzan, Udaltzeetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

**Harreragileak -Administrari laguntzaileak.** behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Alkartasunak babarrun jatea antolatu du, hilaren 29rako, San Miguel egunerako. Izen-ematea egoitzan bertan, 18:30etik 20:00etara.

**Ibarra.** Hilaren 24ean burutuko den *Ibarra, Azoka eta Piparra* azokako antolatzaileek Tolosako artisauei parte hartzeko deialdia luzatu die. Izen-ematea, Kultur Etxean.

**Irura.** Etzi, buruhaundi eta erraldioen kalejiran, 12 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute; izen-ematea, Gaztelekuan. 6 urtetik 11 urte bitartekoek irailaren 23an, egingo den kalejiran parte hartu ahal izango dute buruhaundiz; liburategian eman behar dute izena.

**Irura.** Haurreskolan matrikulatzeko epea zabalik dago irailaren 29ra arte. Izena emateko orria haurreskolan eska daiteke egunero, 08:00etatik 15:00etara.

**Villabona.** Asteburuan Pirinioetara mendi irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonoan.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.

**Alegia.** Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Areso.** Goizueta, F. Loidi ebrea. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia, Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikaslearen saioa.  
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*.  
 22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Aurrenekoak bezain dotoreak

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Bihar amaituko da argazkiak bidaltzeko epea; Elena Urangak, Elias Hermidak eta Iban Zendoiak bidali dute jada beraiena



**'DEKORAZIO BITXIA' ▶**

Elena Uranga (Tolosa).

«Uztailean egon ginen Asturias aldean (Espainia). Hango herri txiki batean, Llanes, bere kaia dauka dekorazio ikusgarria. Harriak daude margotuta kolore bizikin berarekin igaro genuen egunagatik, ahaztezin». Halaxe deskribatu digu bere oporraldia Elena Uranga tolosarrak.

**'OLAGARROAK LASAIANTXEN' ▶**

Elias Hermida (Zizurkil).

Greziako inguruak bisitatu ditu aurtan Elias Hermida zizurkildarrak. «Argazki hau Greziako Mikonos irlan aterata dago abuztuan. Hango irlatan olagarroak lehortzen jartzen dituzte kaleko hainbat tokietan. Oso irla zoragarriak ikusi genituen. ouhhhh iaaaaaa», dio Eliasek.



**'VIGNEMALE' ▶**

Iban Zendoia (Azpeitia).

Argazki hau Azpeitia aldetik bidali digu Iban Zendoiak. Mendiko ikuspegi zoragarri bat ikus daiteke bertan. «Argazki hau Oulettes-ko aterpetxe ingurutik aterata dago abuztuaren 6ko goizean. Irudiko mendia Vignemale da (Frantziako Pirinioak)».



**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...